



Usurbilgo Udala



**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2015EKO IRAILAREN 14EAN
GOIZEKO 8:40EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre.

Zinegotziak: Jone Urdanpilleta Urdanpilleta eta Alaitz Aizpurua Labaka.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Irene Garcia Palacios eta Josune Estella Arranz.

1.- 2015EKO UZTAILAREN 20KO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.

Batzarkideek, 2015eko uztailaren 20ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- AKABA, S.A. ENPRESAK, HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO A-104 (ATALLU) EREMUAN, ATALLU KALEA 14EAN, BAIMENIK GABE EGINDAKO OBRAK LEGEZTATZEA ETA HAUEI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2005-0200

AKABA, S.A. enpresak aurkeztutako eskaera aztertu dut. Bertan, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-104 (Atallu) Eremuan, Atallu kalea 14an eraikitako industri pabiloiaren lehen erabilera baimena eskatzen du.

AURREKARIAK

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2005eko uztailaren 12an eginiko bilkuran, zera erabaki zuen: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-104 (Atallu) Eremuan, Atallu kalea 14-16an industri pabiloi bat eraikitzeko udal baimena ematea.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2015eko maiatzaren 21ean eginiko bilkuran, hitzez hitz ondoko erabakia hartu zuen:

LEHENDABIZI: AKABA, S.A. enpresak eskatu bezala, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-104 (Atallu) Eremuan, Atallu kalea 14-16an eraikitako industri pabiloiari lehen erabilera baimena ematea, Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko uztailaren 12an baimendutako eraikinari dagokionean.

BIGARRENA: Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko uztailaren 12an baimendutako obrek, burututakoarekin bat ez datozenez, erabaki honen jakinarazpena jasotzen denetik kontaktzen hasita hilabeteko epea ematea AKABA, S.A. enpresari, baimenik gabe burututako obrak legeztatze eskaera aurkezteko dagozkion agiriekin batera.



Usurbilgo Udala



HIRUGARRENA: Erabaki hau interesatuei eta Kontuhartzaileari ematea.

BAIMENIK GABE BURUTUTAKO OBRAK LEGEZTATZEA

Orain berriz, AKABA, S.A. enpresak, 2015eko ekainaren 18an, 1922 sarrera zenbakia daraman idatziarekin, baimenik gabeko obrak legeztatze eta hauen lehen erabilera baimena eskuratzeko dagokion dokumentazioa aurkeztu du.

Udal arkitektoak, Jone Miner Aginaga andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2015eko uztailaren 21eko datarekin ondoko txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
OBRA NAGUSIAK
AKABA ENPRESAK ATALLU INDUSTRIALDEAN DUEN PABILOIKO
OBREN LEGEZTAPEN PROIEKTUARI TXOSTENA

KOKAPENA: Atallu Industrialdea, A-104 Eremua, Usurbil

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ,04/2005-0200

OBRA AMAIERAKO LIKIDAZIOA: 28.382,00 EURO

1.- AURREKARIAK

- 2005ko ekainaren 1ean AKABA enpresak Atallu Industrialdean pabiloia eraikitze obra baimena eskatu zuen, Oinarrizko Proiektua aurkeztearekin batera.
- 2005ko ekainaren 27an udal arkitektoak ALDEKO txostena egin zuen.
- 2005eko uztailaren 12an Tokiko Gobernu Batzarrak baimena eman zuen baldintzekin.
- 2005eko azaroaren 8an interesatuak Exekuzio Proiektua aurkeztu zuen, ingeniariak izenpetua eta dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsia (COIIG 2005-11-07).
- 2008ko azaroaren 8an interesatuak Obra Amaierako dokumentazioa aurkeztu zuen Lehen Erabilera Baimena eskatuz.
- 2014ko otsailaren 14an AKABA enpresak Atallu Industrialdean duen pabiloian 2000 m² bereizteko baimena eskatu zuen, 2014ko otsailaren 20an bereizte azalera 3000 m²-koa izan dadin eskatu zuen (HZ.12/2014-0040). Horren harira, udal arkitektoak AKABA enpresaren pabiloia egun lehen erabilera baimenik eta irekiera baimenik ez duela ikusi zuen.
- 2014ko otsailaren 24an udal arkitektoak AURKAKO txostena egin zuen, gauzak zuzentzeko hilabeteko epea amana.
- 2015eko martxoaren 7an Rosario Marijuan arkitektoaren txostena eta Jose Mari Dorronsoro ingeniaria eta Eugenio Urdambide arkitektoaren txostena.
- Kokapen planoak, altzaerak eta ebaketak eta oin guztien oinplantak ere aurkeztu dituzte.
- 2014ko martxoaren 10ean eraikinaren zuinketa akta izenpetu zuten udal aparejadoreak, sustatazaileak eta obra zuzendariak.
- 2014ko martxoaren 10ean Nekane Azarola Araudi S.L.P.-ko aholkulari juridikoaren txostena.



Usurbilgo Udala



- 2014ko maiatzaren 7an interesatuak lehen erabilera baimena eta jarduera irekiera baimena lortzeko 6 hilabeteko epe-luzapena eskatu du.
- 2015eko martxoaren 17an suteen aurkako babeserako neurrien instalazioa abian jar daitekeela egiaztatzeko akta aurkeztu du interesatuak, Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailaren zigiluarekin.
- 2015eko apirilaren 28an udal arkitektoaren txostena.
- 2015eko maiatzaren 4an Nekane Azarola Araudi S.L.P.-ko aholkulari juridikoaren txostena.
- 2015eko maiatzaren 6an udal arkitektoaren txostena.
- 2015eko ekainaren 18an interesatuak dokumentazio osagarria aurkeztu du.

Erlazionatutako espedienteak:

- HZ.07/2005-0199: AKABA pabiloian altzariak egiteko jarduera ezartzeko jarduera proiektua.
- HZ.07/2010-0361: AKABA pabiloian mahai-gaineko amaierako sekzioa ezartzeko jarduera proiektua.
- HZ.12/2014-0040: AKABA enpresak Atallun duen pabiloian 3000 m2 bereizteko udal baimena.

2.- TXOSTENA

AKABA S.A. enpresak Atallu industrialdeko bere pabiloian proiektuan jasotzen ez ziren obren legeztapen proiektua aurkeztu du. Aurkeztutako dokumentazioa Jose M^a Dorronsoro Paulis ingeniariak izenpetuta eta dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsita dago (2015-06-16). Memoriak eta planoek osatzen dute dokumentazio hau.

Espedientea aztertu eta bertaratzea egin ostean honakoa esan daiteke:

Hala, txosten juridikoa aztertu eta espedientea berrikusi ostean honakoa esan daiteke:

- **AURKEZTUTAKO OBRA AMAIERAKO DOKUMENTAZIORA EGOKITZEA:** Oro har, eraikina 2008an aurkeztutako dokumentaziora egokitzen dela ikusi da lantegira egindako bertaratzean.
- **ERAIKINAREN ALTUERA:** Eraikinak baimendutako obrarekiko aldaketak dituela ikusi zen egikaritutako eraikinaren zuinketa aktako planoetan; bereziki, altuera gehikuntza bat nabarmendu zen. Beraz, altuera gehikuntza hau justifikatzeko eskatu zen.

Aurkeztutako legeztapen proiektuak Usurbilgo AASSen Testu Bategineko eraikinaren gehienezko altueraren definizioa dakar gogora: *“industria erabilerarako eraikinetan, eraikuntza altuera neurtzeko goragoko erreferentzia maila azken sestra gaineko oin konputagarriaren altuera erabilgarria neurtzeko goragoko maila izango da.”* Beraz, eraikinak betetzen du 9m-ko gehienezko altuera.

Robotizatutako biltegiari dagokionez, berriz, altuera gehikuntza behar tekniko baten ondorio izan dela adierazten da txostenean. Hala, biltegi hori diseinatu duen Ulma enpresaren plana ere aurkeztu da altuera horren beharra justifikatzeko.



Usurbilgo Udala



- **ERAIKINAREN ERAIKIGARRITASUNA:** baimena jaso zuen proiektuarekiko eraikigarritasun handitze bat egon zen. Hala, honako eraikigarritasuna definitzen da legeztapen proiektuan:

Partzelaren azalera	5.000 m2
Partzelaren eraikigarritasuna	7.500 m2(t)
Eraikinaren okupazioa	4.000 m2
Eraikigarritasuna behe solairuan	4.000 m2 (t)
Eraikigarritasuna sotoan (ez du konputatzen)	4.000 m2 (t)
Solairuartera	2.287 m2 (t)
Eraikigarritasuna guztira	6.287 m2 (t) < 7.500 BETETZEN DU

Beraz, 287 m2(t)-ko eraikigarritasun gehikuntza dago baimena jaso zuen proiektuarekiko.

3.- ONDORIOAK

Goian aipatutakoari jarraiki, Akaba enpresaren obren legeztatze proiektuari **ALDEKO** txostena idazten zaio.

Hau da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2015eko uztailaren 21ean
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Jone Miner Aginaga

Eskaria kontutan hartuz eta udal teknikarien txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: AKABA, S.A. enpresak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-104 (Atallu) Eremuan, Atallu kalea 14ean, baimenik gabe egindako obrak, udal arkitektoak bere txostenean jasotakoak, legeztatzea eta hauei lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Erabaki hau interesatuei eta Kontuhartzaileari ematea.

3.- AKABA, S.A. ENPRESARI, ATALLU INDUSTRIALDEKO ATALLU KALEA 14EAN ALTZARIAK EGITEKO EZARRITAKO JARDUERAREN IREKIERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.07/2005-0199
HZ,07/2010-0361

AKABA, S.A. enpresak aurkeztutako eskaera aztertu dut. Bertan, Atallu industrialdeko Atallu kalea, 14ean altzariak egiteko ezarritako jardueraren irekiera baimena eskatzen du.



Usurbilgo Udala



AURREKARIAK

AKABA, S.A. enpresak bi jarduera espediente izapidetu ditu Atallu kalea 14ean:

1. HZ.07/2005-0199 – altzariak egiteko jarduera

- Espedientea jendaurrean jarri zen (GAO, 107. zenbakia, 2005eko ekainak 8). Jendaurreko epealdian ez zen inolako erreklamaziorik aurkeztu.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak berriz, 2010eko otsailaren 18an helarazi zigun ALDEKO osasun-txostena 775 sarrera zenbakia daraman idatziarekin batera.
- Tokiko Gobernu Batzarrak ere, 2010eko martxoaren 9an aldeko informea eman zuen.
- Ondoren, Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/98 Euskadiko Lege Orokorrak aurreikusten duen moduan, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak aipatu jarduera sailkatu eta dagozkion neurri zuzentzaileak ezarri zituen.
- 2010eko uztailaren 13an, Tokiko Gobernu Batzarrak, Atallu industrialdeko Atallu kalea 14ean altzariak egiteko jarduera ezartzeko udal baimena eman zion AKABA, S.A. enpresari.

2. HZ.07/2010-0361 – mahai-gainekoen amaierako sekzioaren jarduera

- Espedientea jendaurrean jarri zen (GAO, 173. zenbakia, 2010ko irailak 9). Jendaurreko epealdian ez zen inolako erreklamaziorik aurkeztu.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak berriz, 2010eko irailaren 9an helarazi zigun ALDEKO osasun-txostena 3514 sarrera zenbakia daraman idatziarekin batera.
- Tokiko Gobernu Batzarrak ere, 2010eko irailaren 29an aldeko informea eman zuen.
- Ondoren, Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/98 Euskadiko Lege Orokorrak aurreikusten duen moduan, espedientea Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailera igorri zen jarduera sailkatu eta dagozkion neurri zuzentzaileak ezar zitzen.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak ondoko erantzuna helarazi zuen 2011ko urtarrilaren 28an:



Usurbilgo Udala



Erakunde honi atxikitako zerbitzu teknikoek sustatzaiteak aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren hurrengoa egiaztatu da: jasotako aldaketek ez dituztela jarduera garatuko den ingurunearen ingurumen-baldintzak inola ere erdatzen, eta beraz, ez da beharrezkoa 2010eko ekaiaren 8an emandako neurri zuzentzaileak ezartzeko txostena aldatzea.

- 2011ko otsailaren 8an, Tokiko Gobernu Batzarrak, Atallu industrialdeko Atallu kalea 14ean mahai-gaineko amaierako sekzioa ezartzeko udal baimena eman zion AKABA, S.A. enpresari.

IREKIERA BAIMENA

Orain berriz, obra amaierako ziurtagiria eta gainontzeko dokumentazioa aurkeztearekin batera, ezarritako jardueren irekiera baimena eskatzen du.

Udal arkitektoak, Jone Miner Aginaga andereak, aldeko txostena eman du 2015eko uztailaren 28an. Txostenak honela dio hitzez hitz:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
JARDUERAK
AKABA ENPRESAK ATALLU INDUSTRIALDEAN DUEN PABILOIEAN
ALTZARIAK EGITEKO JARDUERAREN IREKIERA BAIMEN ESKAERARI
TXOSTENA TXOSTENA

KOKAPENA: Atallu industrialdea, A-104 Eremua, Usurbil
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.07/2005-0199 eta HZ.07/2010-0361

1_AURREKARIAK

HZ. 07/2005-0199: Akaba pabiloian altzariak egiteko jarduera proiektua:

- 2005eko ekainaren 1ean interesatuak jarduera baimenaren eskaera aurkeztu zuen.
- 2005eko ekainaren 8an jendaurrean jarri zen.
- 2005eko ekainaren 21ean Osasun Sailaren idatzia dokumentazio osagarria eskatuz.
- 2005eko ekainaren 24an udalaren jakinerazpena dokumentazioa eskatuz.
- 2008ko azaroaren 14an interesatuak pabiloian irekiera baimena eskatu zuen.
- 2010eko urtarrilaren 9an interesatuak dokumentazioa aurkeztu zuen.
- 2010eko urtarrilaren 25ean dokumentazio osagarria Osasun sailera bidali zen.
- 2010eko uztailaren 6an EJ-ko Ingurumen Sailaren idatzia, neurri zuzentzaileak ezarriz.
- 2010eko uztailaren 13an jarduera ezartzeko udal baimena.
- 2010eko azaroaren 12an interesatuak irekiera baimena eskatu zuen.
- 2014ko otsailaren 24an udal arkitektoak lehen erabilera baimena emateari AURKAKO txostena egin zion, gauzak zuzentzeko hilabeteko epea emanaz. Txosten berean irekiera baimena emateko, lehenik, lehen erabilera baimena eman behar zela adierazten zen.



Usurbilgo Udala



- 2014ko maiatzaren 7an interesatuak dokumentazio osagarria aurkezteko 6 hilabetez epea luzatzeko eskatu zuen.
- 2015eko martxoaren 17an interesatuak lehen erabilera eta irekiera baimenak eskatu ditu, suteen aurkako instalazioen EJ-ko ziurtagiria ere aurkeztuz.
- 2015eko maiatzaren 14an udal arkitektoaren txostena
- 2015eko maiatzaren 25ean udaleko aholkulari juridikoaren txostena

HZ. 07/2010-361: Akaba pabiloian mahai-gainekoen amaierako sekzioa ezartzeko jarduera proiektua:

- 2010eko abuztuaren 2an interesatuak jarduera baimenaren eskaera aurkeztu zuen.
- 2010eko irailaren 9an jendaurrean jarri zen.
- 2010eko irailaren 9an osasun sailaren ALDEKO txostenaren.
- 2010eko irailaren 15ean arkitektoaren ALDEKO txostena.
- 2011ko urtarrilaren 28an EJ-ko Ingurumen Sailaren idatzia 2010eko ekainaren 8an ezarritako neurri zuzentzaile berberak direla adieraziz.
- 2011ko otsailaren 8an jarduera ezartzeko udal baimena.
- 2014ko otsailaren 24an udal arkitektoak lehen erabilera baimena emateari AURKAKO txostena egin zion, gauzak zuzentzeko hilabeteko epea emanaz. Txosten berean irekiera baimena emateko, lehenik, lehen erabilera baimena eman behar zela adierazten zen.
- 2014ko maiatzaren 7an interesatuak dokumentazio osagarria aurkezteko 6 hilabetez epea luzatzeko eskatu zuen.
- 2015eko martxoaren 17an interesatuak lehen erabilera eta irekiera baimenak eskatu ditu, suteen aurkako instalazioen EJ-ko ziurtagiria ere aurkeztuz.

Erlazionatutako espedienteak:

- HZ.04/2005-0200: AKABA pabiloia eraikitzeko proiektua.
Besteak beste:
 - 2015eko apirilaren 28an udal arkitektoaren txostena.
 - 2015eko maiatzaren 4an Nekane Azarola Araudi S.L.P.-ko aholkulari juridikoaren txostena.
 - 2015eko maiatzaren 6an udal arkitektoaren txostena.
 - 2015eko ekainaren 18an obren Legeztapen proiektua
 - 2015eko uztailaren 21ean udal arkitektoaren txostena
- HZ.12/2014-0040: AKABA enpresak Atallun duen pabiloian 3000 m² bereizteko udal baimena.

2_TXOSTENA

AKABA S.A. enpresak Irekiera Baimena eskatu zuen; orain artean aurkeztutako dokumentazioa honakoa da:

- 2008ko azaroaren 14an: obra baimenaren kopia, obra amaierako ziurtagiria eta likidazioa, obra berriaren eskrituraren kopia, planoak, suteen aurka babesteko eraikineko instalazioaren egiaztagiria, aldagaitulegi instalazioa abian jar daitekeela egiazteko agiria, behe-tentsio instalazioa abian jar daitekeela egiazteko agiria eta ziurtagiria, gasa erabiltzen duen instalazioa abian jar daitekeela egiazteko agiria, hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga eta argazkiak.



Usurbilgo Udala



- 2014ko otsailaren 26an Lehengoak Babes Ingeniaritza S.L. enpresak suteen aurkako babes-bideak aztertu dituela adierazten duen ziurtagiria.
- 2015eko martxoaren 17an suteen aurka babesteko instalazioak abiarazteko jakinarazpena.

Jarduera baimenean irekiera baimena lortzeko honakoa aurkeztu beharko zela jasotzen zen, besteak beste:

“Agindutako neurri zuzentzaileen ezarpenari onespena emateko udaleko Zerbitzu Teknikoek egin beharreko bisitaren aurretik, instalakuntzak aurkeztutako jarduera-Proiektuak dioenari egokitzen direla eta inposatutako neurri zuzentzaileak ezarri direla baieztatzen duen Obra Zuzendaritzaren Egiaztagiria aurkeztu beharko da. Egiaztagiri hau eskudun teknikariak sinatua eta Elkargo ofizialak ikus- onetsitakoa izan beharko du”.

2015eko maiatzaren 14ko arkitektoaren txostenean honakoa jasotzen zen, besteak beste:

*LEHEN ERABILERA BAIMENA: Irekiera Baimena eman aurretik Lehen erabilera baimena eduki behar da. Nekane Azarolak idatzitako txosten juridikoan honakoa jasotzen da: “Lurzoruaren eta Hirigintzaren 210 artikuluen 6. eta 7. atalen baitan, Akaba enpresari administrazio isiltasunen bidez lehen erabilera baimena eman zaiola baieztatu daiteke.” Ondorioz, 2015eko maiatzaren 6ko udal arkitektoaren txostenean honakoa jasotzen zen: “Akaba enpresari administrazio isiltasunaren bidez **lehen erabilera baimena eman zaiola** baieztatu daitekeela”*

*“OBREN LEGEZTATZEA: Udal arkitektoaren 2015eko maiatzaren 6ko txosten horretan bertan udal baimena jasotako obrek zenbait aldaketa jaso dituztela eta hauek legeztatu egin beharko direla adierazten da. Beraz, obra horiek legeztatu artean irekiera baimenik ezin dela eman esan daiteke.” **OBREN LEGEZTATZE PROIEKTUA AURKEZTU DA.***

2015eko maiatzaren 25eko aholkulari juridikoaren txostenean honakoa jasotzen zen, besteak beste:

“Beraz, irekiera baimena eskuratu zenerako lehen erabilera baimena administrazio isiltasunez emana zegoen. Ondorioz, altzariak egiteko jarduerarentzako irekiera baimena ere administrazioaren isiltasunez lortu zuela esan genezake.”

(...)

“Kasu zehatz honetan, mahai-gaineko amaierako sekzioa ezartzeko jarduerarentzako ez zen sekula irekiera baimena eskatu, beraz, ezin da adierazi baimen hori administrazio isiltasunaren medio lortu zutenik. Gaur egun 3/1998 Lege Orokorraren 61.3 artikuluan eskatzen den aurretiazko komunikazioa ere egin gabe du.”

(...)

“3/1998 Lege Orokorrak, lizentziarik edo aurretiazko komunikaziorik gabeko jarduerak daudenean, eta kasu honetan bezala eduki arren, handipenarentzako eskatu ez denean, udalek, besteak beste, honako neurri hau hartu dezakete (65 artikulua):



Usurbilgo Udala



a) *Jarduera legeztatzeko modukoa baldin bada, bere titularra errekerituko du egoera arauen barruan jar dezan. Horretarako epea emango zaio, eta epea, behar bezala justifikatutako ohiz kanpoko kasuetan izan ezik, sei hilabetekoa baino luzeagoa ez da izango. Gainera, jarduera itxi egin ahal izango da egoerak hori egokia dela erakusten badu, interesatuari entzun ondoren”.*

Aipatutako guztiagatik, honako hau proposatzen da:

Lehena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen 3/1998 Lege Orokorren 55. Artikulua baitan, udal arkitektoak ikuskapena egin ondoren beharra ikusiz gero, Akaba enpresari jarduera osoa jaso eta pabilioi osoari egokitzen zaion jarduera proiektua eskatzea. Horretarako udal arkitektoak egoki ikusten duen epea emanaz.

Bigarrena.- Jarduera proiektua aurkeztera behartuz gero, Akaba enpresari jakinaraztea, eskaera hau bete ezean, udalak 3/1998 Lege Orokorrean jasotako neurriak har ditzakela, besteak beste, 55. artikuluan jasotakoak. Hau da, jarduera ixtera behartu daitekeela”.

Hala, espedientea aztertu eta bertaratze egin ostean honakoa esan daiteke:

JARDUERA EKONOMIKOETAN ALTA: Kontuhartzaitzatik jakinarazi da Jarduera Ekonomikoen gaineko zergaren errolda fiskalean honela finkatuta dagoela AKABA S.A.-k Usurbilen duen jarduera:

“Epígrafe 316.6. – Fabricación de mobiliario metálico.”

Nota: Este epígrafe comprende la fabricación de camas metálicas, somieres, colchones de muelles, otros muebles metálicos de uso doméstico; de oficina; para terrazas y jardines, para usos sanitarios y de hospitales; fabricación de cajas fuertes; accesorios para restaurantes, tiendas, salones de peluquería (sillones metálicos, mostradores, vitrinas, etc); cabinas telefónicas, etc., así como la fabricación de piezas y accesorios.

BAIMENA JASO ZUEN JARDUERA PROIEKTUAREKIKO ALDAKETAK:

Eraikinaren ikuskapenean ikusi da 2008ko azaroaren 14an irekiera baimena eskatzeko aurkeztutako planoekin bat datorrela eraikinaren barne distribuzioa. Baimena jaso zuen jarduera proiektuarekiko zenbait barne-aldaketa nabarmendu diren arren, hauek ez dira eraikinaren banaketa orokorrekiko aldaketa esanguratsuak. Gainera, ikusi da Eusko Jaurlaritzako Industria saileko ziurtagiriak ere badituela (suteen aurka babesteko eraikineko instalazioaren egiaztagiria, aldagaitulegi instalazioa abian jar daitekeela egiaztatzeko agiria, behe-tentsio instalazioa abian jar daitekeela egiaztatzeko agiria eta ziurtagiria, gasa erabiltzen duen instalazioa abian jar daitekeela egiaztatzeko agiria) eta baita Lehengoak Babes Ingeniaritza S.L. enpresak suteen aurkako babes-bideak aztertu dituela adierazten duen ziurtagiria ere.

Mahai-gaineko amaiera sekzioa ezartzeko jarduerak udal baimena jaso zuen (jarduera baimena 2011-02-08an) eta 125m² inguruko lokal bat egokitzea zekarren; aurretik lantegian fabrikatzen ziren produktuen prototipoak gauzatzeko erabiltzen zen gela hori. Hala, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak 2011ko urtarrilaren 13ko bere txostenean honakoa zioen:



Usurbilgo Udala



“jasotako aldaketek ez dituztela jarduera garatuko den ingurunearen ingurumen-baldintzak inola ere aldatzen, eta beraz, ez da beharrezkoa 2010eko ekainaren 8an emandako neurri zuzentzaileak ezartzeko txostena aldatzea”

Beraz, esan daiteke 6.000 m² eraiki inguruko pabiloi bateko 125m² inguruko gela baten egokitzea jardueraren aldaketa txiki bat besterik ez dela kasu honetan. Hala, jarduera nagusiaren parte dela esan daiteke. Bestalde, aurretik jarduera honentzako irekiera baimenik eskatu ez bada ere, besteak beste, 2015eko martxoaren 17an, interesatuak lehen erabilera baimena eta irekiera baimena eskatu zituen(jarduera osoarenak).

Guzti honegatik, ez da jarduera proiektu berri bat eskatzeko beharrik ikusten.

EUSKO JAURLARITZAK EZARRITAKO NEURRI ZUZENTZAILEEN BETETZEA: Gogora arazten da Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Ingurumen Sailordetzak 2010eko ekainaren 8an idatzitako txostenean **ezarritako neurri zuzentzaileak betetzea nahitaezkoa dela.**

JARDUERA EZARTZEA: Bertaratzean ikusi da jarduera ezarrita eta martxan dagoela.

3.- ONDORIOAK

Goian aipatutakoari jarraituz, irekiera baimenari ALDEKO txostena idazten zaio, aipatu baldintzak betetzen diren artean.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2015eko uztailaren 28an.
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Jone Miner Aginaga

Udal arkitektoaren, Jone Miner Aginaga anderearen, aldeko txostenak kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak dagoeneko onartu du AKABA, S.A. enpresak eraikitako pabiloiari lehen erabilera baimena ematea ondoko erabakiekin:

- 2015eko maiatzaren 21ean eginiko bilkuran, AKABA, S.A. enpresak Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-104 (Atallu) Eremuan, Atallu kalea 14ean eraikitako industri pabiloiari lehen erabilera baimena ematea, Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko uztailaren 12an baimendutako eraikinari dagokionean.
- Gaur bertan eginiko bilkuran, AKABA, S.A. enpresak Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-104 (Atallu) Eremuan, Atallu kalea 14ean, baimenik gabe egindako obrak, udal arkitektoak bere txostenean jasotakoak, legeztatzea eta hauetako lehen erabilera baimena ematea.



Usurbilgo Udala



Eskaria kontutan hartuz eta udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: AKABA, S.A. enpresari Atallu industrialdeko Atallu kalea, 14ean altzariak egiteko ezarritako jardueraren IREKIERA baimena ematea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Kontuhartzaitzari ematea, beharrezkoa balitz ordaindu beharreko zerga eta tasetan dagokion kitapena egin dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari ematea.

4.- JOSE LUIS LIZARRIBAR MATXINADIARENA JAUNARI, AGINAGAKO GURE TXOKOA ETXEO BEHE SOLAIRUAN ETXEBIZITZA MOLDATZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2010-0218

JOSE LUIS LIZARRIBAR MATXINADIARENA jaunak, Aginagako Gure Txokoa etxeko behe solairuan etxebizitza moldatzeko eta urbanizazio obrak egiteko udal baimena eskatu du.

Eskaera eta espedienteko dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Jone Miner Aginaga andereak, ondoko txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
OBRA HAUNDIAK
AGINAGAKO GURE TXOKOA ETXEO BEHE SOLAIRUAN
ETXEBIZITZA MOLDATZEAREN ETA URBANIZAZIO OBRAK
EGITEAREN INGURUKO TXOSTENA

SUSTATZAILEA: Jose Luis Lizarribar Matxinadiarena
ESPEDIENTEA: Aginagako Gure Txokoa etxeko behe solairuan etxebizitza moldatzea eta urbanizazio obrak egitea
KOKAPENA: A-88 Gure Txokoa, Aginaga; Usurbil
ERREDAKTATZAILEA: Eba Erkizia eta Isabel Fernandez, arkitektoak.
EGIKARITZE MATERIALAREN AURREKONTUA: **54.352 eurokoa.**
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2010-0218

1. AURREKARIAK

- 2010eko maiatzaren 20an, Jose Luis Lizarribar Matxinadiarena jaunak eskaera egin zuen Aginagako Gure Txoko etxeko behe solairuan etxebizitza moldatzeko eta zegokion Exekuzio Proiektua aurkeztu zuen.
- 2010eko ekainaren 11ean Usurbilgo Udal Arkitektoak etxebizitza ezartzeari aldeko txostena idatzi zion, aurrez eta ezinbestean URA



Usurbilgo Udala



- (Uraren Euskal Agentzia) eta Gipuzkoako Foro Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamenduaren baimenari baldintzatua.
- 2010eko uztailaren 5ean URA-ren ebazpena.
 - 2010eko abuztuaren 25ean Gizpukoako Foro Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamenduaren ebazpena.
 - 2011ko martxoaren 25ean, Jose Luis Lizarribar Matxinadiarena jaunak udal baimenaren ziurtagiria eskatu du.
 - 2011ko maiatzaren 23an, Jose Luis Lizarribar Matxinadiarena jaunak zuinketa akta izenpetzea eskatu du.
 - 2011ko maiatzaren 30ean, UR AGENTZIA-ren txostena, udalari; *"goian adierazitako espedienteari buruzko txostena eta Udal hirigintza egiaztagiria eskatzen da, eskabidean proposatutako erabilpena indarreango planeamenduari egokitzen zaiola egiaztatzen duena."*
 - 2011ko uztailaren 7an, UR AGENTZIA-ren txostena, non ondorioztatzen den; *"Erabilera egokia dela eta etxeak indarrean dagoen udal-plangintza betetzen duela egiaztatzen duen udalaren hirigintza-ziurtagiria eta proiektatutako lanei eta Gure Txokoa etxearen atzealdeko terrazaren azpian egindako ustezko handitzeari buruzko txostena (erakuntzaren legaltasuna) bidaltzeko eskatzen da berriz ere"*.
 - 2012ko martxoaren 28an Udal Arkitektoaren aurkako txostena.
 - 2012ko abenduaren 12an Usurbilgo alkateak Eba Erkizia arkitektoaren 2012ko maiatzaren 24-ko idatzia jaso du.
 - 2013ko urtarrilaren 24an Gure Txokoa etxearen eskrituren kopia aurkeztu du interesatuak.
 - 2013ko urtarrilaren 29an udal arkitektoaren AURKAKO txostena.
 - 2013ko martxoaren 8an interesatuak dokumentazio osagarria aurkeztu du.
 - 2013ko martxoaren 13an GFA-ko Errepide sailaren baimena.
 - 2013ko martxoaren 22an Ur Agentziaren idatzia, baimena UKATUZ.
 - 2013ko ekainean, interesatuak eskatuta, bilera egin da udalean, URAko teknikaria, udal arkitektoa eta interesatuaren artean.
 - 2013ko urriaren 22an interesatuak dokumentazio osagarria aurkeztu du.
 - 2013ko azaroaren 4an Ur Agentziaren idatzia, interesatuaren erantzunkizun aitortpena helaraziz.
 - 2014ko ekainaren 3an udal arkitektoak Ur Agentziak emandako baimenaren inguruko argibideak eskatzeko esan du.
 - 2014ko uztailaren 14an Ur Agentziaren txostena.
 - 2015eko maiatzaren 26an udal arkitektoaren txostena
 - 2015eko ekainaren 1ean udal zerbitzu eta mantenu saileko buruaren txostena
 - 2015eko uztailaren 3an interesatuak dokumentazio osagarria aurkeztu du
 - 2015eko abuztuaren 11an GFAko Bide Azpiegituretako Departamentuko Jakinarazpena

2. TXOSTENA

Aginagako Gure Txokoa etxeko behe solairuan etxebizitza ezarri eta urbanizazio obra osagarriak egiteko proiektuari eransteko dokumentazio osagarria aurkeztu du Jose Luis Lizarribarrek. Aurkeztutako dokumentazioa honakoa da: txostena eta planoak. Guztia Eba Erkizia



Usurbilgo Udala



arkitektoak izenpetuta eta dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsi gabe dago.

Aurkeztutako dokumentazioak 2015eko maiatzaren 26an udal arkitektoak egindako aurkako txostenari erantzuten dio.

Aurkeztutako dokumentazioa eta espedientean daudenak aztertu ondoren, honakoa ondorioztatu daiteke:

Batetik, udal arkitektoaren azken txostenean (2015eko maiatzaren 26ko txostenean) honakoak justifikatzeko eskatu zen:

- i. **BIZIGARRITASUN BALDINTZEN BETETZEA**; Usurbilgo AASS-etako "Izaera orokorrez aplikagarriak diren eraikuntza baldintzak" 37. artikulua araberara, eraikuntzen erabilera eta bizigarritasun baldintzak justifikatzeko Babes Ofizialeko Etxebizitzetara dagozkien Ordenantzak aplikatu beharko dira, besteak beste. Ordenantza hauek justifikatzeko eskatu zen, bereziki honakoak eskatu ziren:

"Sukaldeak ez du leihorik, eta bi logela baino gehiago daudenean egongela, sukaldea eta jangela batera dauden kasuetan ere zati bakoitzak bere leihoa eduki beharko du (ikus BOEn Ordenantzetako 5.2.a.1 puntua).

-Tendederoak aireztatua egon behar du eta proposamenean iparraldeko trastelekuan kokatzen dela besterik ez da esaten (ikus AASSetako 37. artikulua eta BOEn Ordenantzetako 5.2.a.5 eta 5.2.a.6 puntuak)."

Justifikazioa aurkeztu da eta baldintzak betetzen direla esan daiteke. Edonola, aurkeztutako justifikazioan adierazten den moduan, tendederoak aireztatuta egon beharko du nahitaez.

- ii. **EKT-REN BETETZEA**; HE1 atalaren justifikazioa aurkezteko eskatu zen udal arkitektoaren azken txostenean. **Aurkeztu da.**

Horrez gain, SUA dokumentuaren arabera partzela pribatuan, etxebizitzaren sarreraraino, ibilbide irisgarri bat egotea bermatu behar da. Justifikazioa aurkezteko eskatu zen.

Aurkeztu den justifikazioan adierazten denez gaur egun lehenengo eta bigarren solairuko etxebizitzetara iristeko eskaileraren hasera errepideari erantsita dago. Proposatzen den soluzioarekin eskailera hau aldatu egiten da bi etxebizitza hauek iparraldeko eranskinetik sarrera egokiago bat izateko; eta bide batez behe solairuko etxebizitzara ere sarbidea egokitzen da iparraldeko eranskin horretatik bertatik. Baina sarrera-gune horretara iristeko irisgarritasun araudiak eskatutako gutxienezko zabalera ez da betetzen.

Hala ere, eraikuntzaren Kode Teknikoak, bere aplikazio eremuari dagokionez honakoa dio:

"Cuando la aplicación del Código Técnico de la Edificación no sea urbanística, técnica o económicamente viable o, en su caso, sea incompatible con la naturaleza de la intervención o con el grado de protección del edificio, se podrán aplicar, bajo el criterio y responsabilidad del



Usurbilgo Udala



proyektista o, en su caso, del técnico que suscriba la memoria, aquellas soluciones que permitan el mayor grado posible de adecuación efectiva”.

Beraz, irisgarritasun araudia betetzeko ezintasun teknikoa dagoelako eta egungo egoera ahal den neurrian hobetzen dela ikusita, **ontzat eman daiteke**.

Bestalde, honakoak **BETE BEHARKO DIRA ezinbestean**:

- iii. **DAGOKION ELKARGOAK IKUS-ONETSITAKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA**; 2015eko uztailaren 3an aurkeztutako txostena eta planoak arkitektoak izenpetuta daude baina dagokion elkargoak ikus-onetsi gabe. **HILABETEKO EPEAN ekarri beharko da dagokion elkargoak ikus-onetsita dokumentazio honen kopia bat.**
- iv. **URBANIZAZIO OBRA OSAGARRIAK; KANPO APARKALEKUA**; AASSetako Hirigintza Fitxaren arabera A-88 eremuko eraiki gabeko partzela zatia lorategi pribatua edo baratza izango da; beraz, dagokion tratamendua eman beharko zaio. **Ezin da aparkaleku erabilera baimendu.**
- v. **LERROKADURAZ KANPOKO HANDITZEAK ETA ERANSKIN DEGRADATZAILEAK**; Etxearen atzeko aldeko eranskina (ekialdekoa) ordenazioz kanpo dago. **Inolaz ere ezingo da bertan etxebizitza erabilera ezarri.**
- vi. **ZERBITZU INSTALAZIOAK**; Zerbitzuen hartuneen inguruan udal aparejadorearen txostenera bideratzen da. Proiektuko memorian eta I02 planoan ur zikinak udal sarera bideratzen direla adierazten da. Udal aparejadorearen 2015eko ekainaren 1eko txostenean inguruan saneamenduko udal sarerik ez dagoela adierazten da. Ondorioz, **hobi septiko bat instalatu beharko da.**
- vii. **URA (URAREN EUSKAL AGENTZIA)-REN BAIMENA**; URAk oniritzia eman zion aurkeztutako Erantzunkizunpeko Aitorpenari. Baina oniritzi hori Gure-txokoaren behe solairuan aurkeztutako proiektuaren arabera etxebizitza erabilera ezartzeari dagokio. Hala, **ez da eremutik pasatzen den errekaen intubatzea baimentzen.**
- viii. **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN BIDE AZPIEGITURETAKO DEPARTAMENDUAREN BAIMENA**; Baimenaren kopia aurkeztu da (2015-08-11) eta urtebeteko epea du obrak egiteko. **Ezinbestean bete beharko dira Foru Aldundiak ezarritako baldintzak.**
- ix. **HIRIGINTZA-ERAIKIGARRITASUN HAZTATUA GEHITZEAK ERAGINDAKO KARGEN BETETZEA**;

1-Ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 27. artikulua eta hau aldatzen duen azaroaren 28ko 11/2008 legeari jarraituz, hiri-lurzoru finkatugabearen eta lurzoru urbanizagarriaren jabeek udalari doan eta urbanizazio-kostuetatik libre, laga beharko dioten batez besteko eraikigarritasun haztatua %15ari dagokion konpentsazio ekonomikoaren balorazioa.



Usurbilgo Udala



Lurzoruaren egoera landa-lurra edo hiritartua izan daitekeela dio Lurzoruari buruzko ekainaren 20ko 2/2008 Errege Dekretu Legeak. Egoera honen arabera balorazioa era desberdinean egingo da. Gure kasuan lurzoru hiritartuaz ari gara.

Ondoren, Urriaren 24-ko 1492/2011 Errege Dekretuak, Lurzoru Legeko balorazioen Araudiak, lurzoruaren egoera kontutan hartuta balorazioa nola egin adierazten du. Hala, 22. artikulua arabera egingo da balorazioa:

1.1-ERAIKIGARRITASUN HAZTATU OSOAREN SALMENTA BALIOA (Vv)

ETXEBIZITZA ERABILERA							
Helbidea	udalerrria	Azalera (m2)	Prezioa (euro)	Prezioa/m2 (euro/m2)	%15eko jaitsiera (euro/m2)	Homog. Koef. (Kokap. Besteak)	Vv (euro/m2)
Aginaga auzoa	usurbil	100	120.000	1.200,00	1.020,00	1	1.020,00
Learritza bidea (Zubieta)	usurbil	145	200.000	1.379,31	1.172,41	0,8	937,93
Txokoalde auzoa	usurbil	66	89.000	1.348,48	1.146,21	0,9	1.031,49
Aginaga auzoa	usurbil	100	207.000	2.070,00	1.759,5	0,7	1.231,65
Antxiola kalea	orio	80	170.000	2.125,00	1.806,25	0,5	903,13
Santuene auzoa	usurbil	65	110.000	1.692,31	1.438,46	0,7	1.006,9
Vv etxebizitza							1.021,85

Gaur egun etxebizitza bihurtu nahi den lokalak garaje erabilera dauka; garaje erabilerarekin antzeko lokalen ereduak aurkitzea oso zaila denez eta Usurbilgo udalak onartutako haztapen koefizienterik ez duenez eusko jaurlaritzako babes ofizialeko etxebizitza eta eranskinen (trasteleku eta garajeen) prezioen arteko proportzioa hartzea pentsatu da. Hala, garajearen prezioa etxebizitzarena halako 0,40koa izango da.

Etxebizitzaren prezioa = 1.021,85 euro/m² X 100m² = 102.185 euro

Garajearen prezioa = 0,40 X 102.185 euro = 40.874 euro

Ondorioz, salmenta prezioen arteko aldea **61.311** eurokoa da. Hau da, beraz eraikigarritasun haztatuaren gehikuntza kalkulatzeko Vv-ren balioa.

1.2-ERAIKUNTZA KOSTUEN KALKULUA

Exekuzio Proiektuaren arabera obrako egikaritze materialaren kostuen, gastu orokorren eta eraikitzailearen industria irabazien baturari dagokien aurrekontuaren balioa honakoa da: 64.678,88 euro.

Balio honi beharrezko gastu ezberdinen portzentaia aplikatu behar zaio: Proiektu teknikoak, Baimen eta tasak, Obra



Usurbilgo Udala



zuzendaritza, Obrako eta bestelako aseguruak, notaritza eta erregistroko gastuak, besteak beste. Beharrezko gastuei dagokien portzentaia %20 ingurukoa dela esan daiteke.

Beraz, eraikuntza kostuen guztizko balioa honakoa da:

$$V_c = 64.678,88 \text{ euro} + (0,20 \times 64.678,88) = \mathbf{77.614,66 \text{ euro}}$$

1.3-ETXEBIZITZA ERABILERA DUEN LURZORUAREN REPERKUSIO-BALIOA

$$\mathbf{VRS = (V_v/K) - V_c = -33.821,09 \text{ euro}}$$

$$V_v = \text{salmenta balioa (aldea) (euro/m}^2\text{(t))} = 61.311 \text{ euro}$$

$$K = 1,4$$

$$V_c = \text{eraikuntza balioa (euro/m}^2\text{(t))} = 77.614,66 \text{ euro}$$

Beraz, Gure Etxeako behe solairuan garaje erabileraren ordeztu etxebizitza erabilera ezartzeak ez dakar eraikigarritasun haztatuaren gehikuntzarik. Izan ere, etxebizitza egokitzeko egin behar diren gastuen ondorioz lurzorua reperkusio-balioa negatiboa da.

2-123/2012 Dekretuko 6. eta 7. artikuluei jarraituz hirigintza-erakigarrtasun haztatu gehitzeak eragindako zuzkidura-kargen balorazioa.

Aipatu dekretuak ezartzen dituen zuzkidura-kargak eraikigarritasun haztatuaren gehikuntzaren arabera izan behar dute; kasu honetan, aurreko puntuan azaldu den moduan, eraikigarritasun haztatuaren gehikuntzarik ez dagoenez zuzkidura-kargarik ere ezingo da eskatu.

x. **BESTEAK**; Oro har, indarrean den araudia bete beharko da.

xi. **OBRA BAIMENAREN EPEAK**:

12. Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.

13. Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.

14. Obraren egikaritze epe gehiengoa: 1 urte.

3. ONDORIOAK

Goian aipatutakoari jarraiki, **Aginagako Gure Txokoa etxeko behe solairuan etxebizitza moldatzeko proiektuari ALDEKO txostena idazten zaio aipatutako baldintzak betetzen diren artean.**

Hau da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2015eko abuztuaren 12an.

UDAL ARKITEKTOA

Izta.: Jone Miner Aginaga



Usurbilgo Udala




Udal aparejadoreak berriz, Felix Aizpurua Arzallus jaunak, espedienteko dokumentazioa aztertu ostean, 2015eko ekainaren 1ean ondoko txostena eman du hitzez hitz:

MANTENU ETA ZERBITZUAK SAILAREN TXOSTENA
ESKAERA: Eraiki behar den etxebizitzaren udal zerbitzuei dagozkien lotuneak
ESKATZAILEA: Hirigintza sailak
KOKAPENA: Aginaga 43 (Gure txokoa etxea)
ESP. ZENB: HZ.04/2015-0218

TXOSTENA

Aginaga 43, Gure Txokoa etxeko exekuzio proiektuko, Udal zerbitzuetako sareetako lotuneei buruzko txostena eskatzen du Hirigintza sailak.

Aurkeztutako proiektuan jasotzen da ur-kontagailuen kokapena, eta ur zikinak eta euri urak "a red de fecales" eta "a canal" adierazten duen planoak.



3.4.14.1- Saneamiento

Con la habilitación de la vivienda se realiza sólo la recogida de saneamiento de aguas fecales y un drenaje perimetral para evitar las humedades de capilaridad en la fachada existente.

La red de **fecales** será mediante colector enterrado de PVC rígido, con arquetas. Será de 110 mm de diámetro.

La red de **pluviales** es existente. En obra se comprobará el estado de la red existente de aguas pluviales.

Ur zikinak: Etxeko ur zikinak bideratzeko, inguruan ez dago saneamenduko sare publikorik.

Euri urak: Etxeko euri urak bideratzeko, inguruan ez dago saneamenduko sare publikorik.

Ur-hartunea:




Usubilgo Udala



Aurkeztutako proiektuan jasotzen den ur-kontagailuaren kokapena ez da zuzena. Udal zerbitzuetako ur sarearen alboan egingo da lotunea.

Etxeko hiru ur kontagailuak hartunearen alboan jarriko dira, sare pribatua ur sare publikoarekin lotzen den puntuan. Pan Inter kutxatila baten barruan, udal zerbitzu teknikoek adieraziko duten tokian. Kutxatila babesteko hormigoizko blokezko nitxo eraikiko da.

Ur-hartune berriak egiteko udal baimena eskatuko da. Eskaerarekin batera, instalazioaren kokapena, xehetasun planoak eta aurrekontu zehaztua aurkeztuko dira.



Ur hartuneak hurrengoak beteko ditu:

1. Hartuneak eta instalazioa burutuko dira, ur horniketako CTE-DB-HS4 oinarritzko arauen arabera, udal zerbitzu teknikoek adieraziko duten tokian.
2. Aquarius markako kontagailuak gehienez 1" batekoa eta irakurketa moduluak instalatuko dira.
3. Ebaketako giltzak jarriko dira kontagailuen aurretik eta atzetik.
4. Itzultze aurkako balbula instalatuko da.
5. Kontagailua, hartunearen alboan jarriko da, Pan Inter kutxatila baten barruan, udal zerbitzu teknikoek adieraziko duten tokian. Kutxatila babesteko hormigoizko blokezko nitxo eraikiko da.
6. Ura hartu baino lehen, ur edangarriko instalazioaren Industria Ordezkaritzak emandako baimena aurkeztuko da.
7. Sare nagusian ura kendu gabe egingo da hartunea
8. Obra hasi aurretik, egungo instalazioen kokapena zehaztuko da. Udal instalakuntzak Udal zerbitzu teknikoek bidez eta beste instalazioak dagokion enpresa hornitzaileen bidez.
9. Hondatzen diren materialak birjarriko dira.

2015eko ekainaren 1ean



Usurbilgo Udala



Zerbitzu eta Mantenu Saileko burua
Felix Aizpurua Arzallus

Gauzak horrela, udal arkitektoaren eta udal aparejadorearen txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: JOSE LUIS LIZARRIBAR MATXINADIARENA jaunari, Aginagako Gure Txokoa etxeko behe solairuan etxebizitza moldatzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- 2015eko uztailaren 3an aurkeztutako txostena eta planoak arkitektoak izenpetuta daude baina dagokion elkargoak ikus-onetsi gabe. **HILABETEKO EPEAN dagokion elkargoak ikus-onetsita dokumentazio honen kopia bat aurkeztu beharko da.**
- Eba Erkizia eta Isabel Fernandez arkitektoek 2010eko apirilean (EHAE0 2010-05-06) idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Urbanizazio obra osagarriak. **Ezin da aparkaleku erabilera baimendu.** Eremuko eraiki gabeko partzela zatia lorategi pribatua edo baratza izango da.
- Etxearen atzeko aldeko eranskina (ekialdekoa) ordenazioz kanpo dago. **Inolaz ere ezingo da bertan etxebizitza erabilera ezarri.**
- Saneamendua. Saneamenduko udal sarerik ez dagoenez, **ezinbestean hobi septiko bat instalatu beharko da.**
- **Eremutik pasatzen den erreka erantubatzeko ez da baimentzen.**
- **Ur-hartuneak:**

Aurkeztutako proiektuan jasotzen den ur-kontagailuaren kokapena ez da zuzena. **Udal zerbitzuetako ur sarearen alboan egingo da lotunea.**

Etxeko hiru ur kontagailuak hartunearen alboan jarriko dira, sare pribatua ur sare publikoarekin lotzen den puntuan. Pan Inter kutxatila baten barruan, udal zerbitzu teknikoek adieraziko duten tokian. Kutxatila babesteko hormigoizko blokezko nitxoa eraikiko da.



Ur-hartune berriak egiteko udal baimena eskatuko da. Eskararekin batera, instalazioaren kokapena, xehetasun planoak eta aurrekontu zehaztua aurkeztuko dira.



Usurbilgo Udala



Ur hartuneak hurrengoak beteko ditu:

1. Hartuneak eta instalazioa burutuko dira, ur horniketako CTE-DB-HS4 oinarritzko arauen arabera, udal zerbitzu teknikoen adieraziko duten tokian.
 2. Aquarius markako kontagailuak gehienez 1" batekoa eta irakurketa moduluak instalatuko dira.
 3. Ebaketako giltzak jarriko dira kontagailuen aurretik eta atzetik.
 4. Itzultze aurkako balbula instalatuko da.
 5. Kontagailua, hartunearen alboan jarriko da, Pan Inter kutxatila baten barruan, udal zerbitzu teknikoek adieraziko duten tokian. Kutxatila babesteko hormigoizko blokezko nitxoa eraikiko da.
 6. Ura hartu baino lehen, ur edangarriko instalazioaren Industria Ordezkaritzak emandako baimena aurkeztuko da.
 7. Sare nagusian ura kendu gabe egingo da hartunea
 8. Obra hasi aurretik, egungo instalazioen kokapena zehaztuko da. Udal instalakuntzak Udal zerbitzu teknikoen bidez eta beste instalazioak dagokion enpresa hornitzaileen bidez.
 9. **Hondatzen diren materialak birjarriko dira.**
- Ezinbestek Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak ezarritako baldintzak beteko dira.
 - Eraikuntzen erabilera eta bizigarritasun baldintzei dagokionez, Babes Ofizialeko Etxebizitzetara dagozkien Ordenantzak beteko dira. Edonola tendederok aireztatuta egon beharko du ezinbestean.
 - Ezinbestean bete beharko dira indarrean diren EKT eta aplikagarriak diren gainontzeko araudiak, hala nola, Tentsio Bajuko Instalazioen Erreglamendua eta Irisgarritasun Araudia (1997ko Legea eta 68/2000 Dekretua).
 - Obra burutzeko zoru publikoa erabili beharko balitz, udal baimena eskatuko da horretarako prestatuta dagoen inprimakia erabiliz. Hartuko den azalera eta, hasierako eta bukaerako egunak zehaztuko dira.
 - Baimen honetan zehazten ez den arren, indarrean den araudi aplikagarria betetzen ez duen ezaugarri/elementu/obra-ren bat barneratzen badu proiektuak, ezinbestean araudira egokitu beharko da, eta beraz, ez da baimen honetan inplizituki ontzat ematen.
- α) OBRA BAIMENAREN EPEAK:
- b. Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - c. Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - d. Obraren egikaritze epe gehiengoa: urte 1.



Usurbilgo Udala



- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 1. Lanen lizentzia edo lizentzien kopia.
 2. Bertako zuzendari eskudunak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzirik, lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla (balizko eraldaketak), ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.
 3. Egiaz burututako lanaren planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.

1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lurzatiaren behin betiko egoeraren planoak ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzazko lanak bertan jasoaz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.
 4. Eraikin edo instalaketen kanpoaldearen argazkiak, 13 x 18 zmtakoak, atzealdean lizentziaren titularrak, lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozela adieraziz.
 5. Lanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidatzea, lan eta instalaketen egiazko kostea adieraziz.
 6. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren alta.
 7. Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturik, elektrairaren hornikuntza sareko «Loturako Buletina»ren eta, kasua balitz, gas metaketa eta banakuntzarako
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - ☞ Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - ☞ Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
 - ☞ Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - ☞ Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberrako segurtasun neurriak beteko dira.
 - ☞ Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.



Usurbilgo Udala



5.- JULIAN ZUBELDIA ZINKUNEGI JAUNARI, SAN ESTEBAN BIDEA 8, BEHEA-EZKERRA B LOKALA EGOITZAZKO ERABILERARA ALDATZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2015-0189

Jacinto Erice Aras jaunak, JULIAN ZUBELDIA ZINKUNEGI jaunaren izenean, San Esteban bidea 8, behea – ezkerra (B lokala) lokala komertzial erabileraz aldatzeko udal baimena eskatu du, bertan etxebizitza moldatu ahal izateko. Eskaerarekin batera, honako dokumentazioa aurkeztu du:

- 2015eko apirilaren 29an: Exekuzio Proiektua, honako dokumentuek osatzen dutena; Memoria, Planoak, Hondakin Kudeaketarako Azterlana, Segurtasun eta Osasun Oinarrizko Azterlana, Kalitate Kontrol Plana, Aurrekontua eta Baldintza Plegua. Guztiak teknikari gaituak izenpetuak (Luis Pablo Blanco arkitektoak) eta dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsiak (COAVN 2015-04-22).
- 2015eko uztailaren 30ean: eskrituren kopia, lokala etxebizitza bihurtzeko jabeakideen baimena duela dioen San Esteban 8ko administratzailearen ziurtagiria, eskatzailea jabea dela ziurtatzen duen jabetza erregistroko ziurtagiria eta Egikaritze Proiektuaren Aldaketa, teknikari gaituak izenpetua (Luis Pablo Blanco arkitektoak) eta dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsia (COAVN 2015-07-28).

Udal arkitektoak, Jone Miner Aginaga andereak, 2015eko abuztuaren 6an etxebizitza moldatzeko proiektuari ALDEKO txostena eman dio.

Udal arkitektoek egindako txostenak kontutan izanik, *hiri lurzoruan, bizitegi eremu finkatuetan merkataritzako lokalen erabilera egoitzazko erabilerara aldatzeko jardunak arautuko dituen udal ordenantzak xedatutakoaren arabera*, erabilera aldaketa gauzatzeko izenpetu beharreko ondoko hitzarmena prestatu da:

HIRUGARREN SEKTOREKO ERABILERATIK EGOITZAZKO ERABILERARA ALDATZEKO HITZARMENA

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2015-0189

Usurbil, 2015eko irailak xx

BILDURIK

Batetik, XABIER ARREGI IPARRAGIRRE jauna, adinez nagusia, Usurbilgo Udalaren alkate-lehendakaria. Udalaren ordezkartzan dihardu eta horretarako behar besteko ahalmena du, 2015eko ekainaren 13an hartutako erabakiaren arabera.

Eta, bestetik, JULIAN ZUBELDIA ZINKUNEGI jauna, 72.427.769-X NAN zenbakiduna, ondoko helbidea denak: Mahaspildegi Etxea (Sakabanatuak 3.Sek. - 3, 1) / Usurbil. Bere izenean dihardute.



Usurbilgo Udala



AURREKARIAK

LEHENA.- JULIAN ZUBELDIA ZINKUNEGI jauna Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-47 (Etxealdia) Eremuan, San Esteban bidea 8, behea – ezkerrean **B lokalaren** jabea da. Honek 64 metro karratuko azalera du.

BIGARRENA.- 2015eko apirilaren 29an, JULIAN ZUBELDIA ZINKUNEGI jaunak, lehen aurrekarian aipatzen den lokalean hirugarren sektoreko erabileratik bizitegi erabilerarako aldaketa egiteko lizentzia eskatu zuten. Eskaerarekin batera, honako dokumentazioa aurkeztu du:

- 2015eko apirilaren 29an: Exekuzio Proiektua, honako dokumentuek osatzen dutena; Memoria, Planoak, Hondakin Kudeaketarako Azterlana, Segurtasun eta Osasun Oinarriko Azterlana, Kalitate Kontrol Plana, Aurrekontua eta Baldintza Plegua. Guztiak teknikari gaituak izenpetuak (Luis Pablo Blanco arkitektoak) eta dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsiak (COAVN 2015-04-22).
- 2015eko uztailaren 30ean: eskrituren kopia, lokala etxebizitza bihurtzeko jabeakideen baimena duela dioen San Esteban 8ko administratzailearen ziurtagiria, eskatzailea jabea dela ziurtatzen duen jabetza erregistroko ziurtagiria eta Egikaritze Proiektuaren Aldaketa, teknikari gaituak izenpetua (Luis Pablo Blanco arkitektoak) eta dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsia (COAVN 2015-07-28).

HIRUGARRENA.- Tokiko Gobernu Batzarrak, 2015eko irailaren xx-an egindako bilkuran, JULIAN ZUBELDIA ZINKUNEGI jaunak egindako eskaeraren aldeko iritzia eman zuen. Era berean, **9.847,21** eurotan finkatu zuen lokal horren erabilera aldatzearen ondoriozko hirigintza kargen zenbatekoa.

LAUGARRENA.- 2015eko irailaren xx-an JULIAN ZUBELDIA ZINKUNEGI jaunak lehen aurrekarian adierazten den lokalean hirugarren sektoreko erabileratik egoitzazko erabilerarako aldaketa egiteko Udalarekin bidezko Hitzarmena sinatzeko prest zegoela adierazten zuen idatzia aurkeztu zion Udalari, betiere arestian aipatu dugun 2015eko irailaren xx-an erabakian aditzera ematen denari jarraituta.

Bi aldeek elkarri onartzen diote Hitzarmen hau sinatzeko behar besteko gaitasuna eta aginpidea eta, horretarako, honako dokumentu hau sinatzen dute, ondoko xedapenak aintzat hartuta

XEDAPENAK

LEHENA.- Usurbilgo Udalak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-47 (Etxealdia) Eremuan, San Esteban bidea, 8 behea-ezkerrean, 64 metro karratuko azalera duen **B lokalean** hirugarren sektoreko erabileratik egoitzazko erabilerarako aldaketa egiteko baimena ematen du, betiere ondoren adierazten diren xedapenei jarraituta.

BIGARRENA.- Arestian aipatutako lokala etxebizitza bihurtzeko jardun horrek eragiten dituen hirigintza kargak ordaindu beharko dira. Karga hauen zenbatekoa **9.847,21 eurotakoa** da eta ondoko kontzeptuetan banatzen da:



Usurbilgo Udala



- α) Espazio libreen sistema orokorrak osatzeko xedea duten lursailen balioa: 1.232,90 €
- β) Eraikigarritasun haztatuak izandako gehikuntzaren kuota: 3.892,99 €
- γ) Hirigintza eta ekipamendu-gastuen kanon osagarria: 4.721,32 €

Zenbateko hori egintza honetan bertan ordainduko da eta Hitzarmen hau ordainketa gutun gisa izango da baliagarria.

HIRUGARRENA.- Aldaketaren ondotik eratorritako etxebizitza babes publikoko etxebizitzatzat (Tasaturiko Udal Etxebizitza) hartuko da etengabe, eta *hiri lurzoruan, bizitegi eremu finkatueta merkataritzako lokalen erabilera egoitzazko erabilerara aldatzeko jardunak arautuko dituen udal ordenantzaz* ezarritako erregimenera atxikiko da, etorkizunean kalifikazio horretatik ateratzeko aukerarik izan gabe.

LAUGARRENA.- Lokalean hirugarren sektoreko erabileratik egoitzazko erabilerarako aldaketa egiteko baimen hau, jabetza eskubidea gordeta eta hirugarren baten kalterik gabe egiten da, baita esku-hartzeak exiji ditzakeen jabetza horizontaleko tituluaren aldaketen kalterik gabe ere.

BOSGARRENA.- Erabileraren aldaketa gauzatzeko, interesatuak etxebizitza egokitzeko beharrezko lanak egin beharko ditu, horretarako aurretik Udalaren aginduzko lizentzia jasoz. Interesatuak, Hitzarmen hau izenpetzen den unetik kontatzen hasita, BI HILABETEKO epea izango du dagokion Proiektu Teknikoa aurkezteko eta etxebizitza erabilera propiorako izango den ala ez, edo saltzeko edo alokatzeko izango den adierazteko.

SEIGARRENA.- Interesdunak, etxebizitza *Hiri lurzoruan, bizitegi eremu finkatueta merkataritzako lokalen erabilera egoitzazko erabilerara aldatzeko jardunak arautuko dituen udal ordenantzako 9. artikuluan ezarritako baldintzak* betetzen dituenari besterendu edo alokatzeko konpromisoa hartzen du.

ZAZPIGARRENA.- Hitzarmen hau sinatu eta URTEBETEKO epean amaitu beharko dira lokala hirugarren sektoreko erabileratik egoitzazko erabilerara aldatzeko lanak, lehen erabilerako lizentzia lortu beharko da eta etxebizitzan jendeak bizi beharko du. Lehen erabilera baimena ematearekin batera etxebizitza Udal Etxebizitza Tasatu bezala kalifikatuko da. Epe horretan aurreko alderdi guztiak bete ez badira, erabilera aldatzeko eskubidea galdu egingo da eta zigor gisa hirigintza kargen kontzeptupean ordaindutako zenbatekoaren % 50 soilik itzuliko da.

ZORTZIGARRENA.- Etxebizitza berriari lehen erabilerako lizentzia eman ondoren eta hitzarmen hau sinatu eta urtebeteko epea amaitu aurretik etxebizitzan benetan jendea bizi dela egiaztatu ondoren, Udalak gertatu den erabilera aldaketaren eta lokalak lortu duen etxebizitza izaera berriaren behin betiko egiaztagiria emango du.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko, bi aldeek goiburuan adierazten den lekuan eta egunean sinatzen dute dokumentu hau ale bitan.

Alkateak,
Izp.: Xabier Arregi Iparragire

JABETZAK,
Izp.: Julian Zubeldia Zinkunegi



Usurbilgo Udala



Gauzak horrela, udal arkitektoaren ALDEKO txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrari honako proposamena onartzea proposatzen diot:

PROPOSAMENA

LEHENDABIZI: JULIAN ZUBELDIA ZINKUNEGI jaunari, Udalak behin betikoz onartu duen «Hiri lurzoruan, bizitegi eremu finkatuetan merkataritzako lokalen erabilera egoitzazko erabilerara aldatzeko jardunak arautuko dituen udal ordenantza» kontutan izanik, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-47 (Etxealdia) Eremuan, San Esteban bidea 8, behea-ezkerra B lokala (Erreferentzi katastrala: 77 91 220; Zenbaki finkoa: 108942K) egoitzazko erabilerara aldatzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- Erabileraren aldaketa ebazpenen honen azalpenetan jasotzen den Hitzarmena jabeak eta Alkateak izenpetzen dutenean, eta segidan zehaztutako hirigintza kargak ordaindutakoan gauzatuko da.
- Obra lizentzia lortu ahal izateko, erabilera aldaketarako udal ordenantzako 6. artikuluan jasotzen den moduan, eskabidearekin batera, dagokion elkargoak ikus- onetsitako arkitekto batek idatzitako proiektu teknikoa aurkeztu beharko du.

Era berean, pertsona eragileak, etxebizitza, erabilera aldaketarako udal ordenantzako 9. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituenari, besterendu edo alokatzeko bere nahia adieraziko du.

- Erabilera aldaketarako ondoko hirigintza kargak ezartzen dira:
 4. Espazio libreen sistema orokorrak osatzeko xedea duten lursailen balioa: 1.232,90 €
 5. Eraikigarritasun haztatuak izandako gehikuntzaren kuota: 3.892,99 €
 6. Hirigintza eta ekipamendu-gastuen kanon osagarria: 4.721,32 €
 7. Guztira: **9.847,21 €**
- Baimen hau hirugarrengoen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.
- Erabileraz aldatutako lokalari, udal etxebizitza tasatuen behin betiko kalifikazioa eta lehen erabilera baimena eman aurretik, dagokion ikuskapena burutuko ostekoa aldeko txostenaz gain, beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko da (eskritura berriak etxebizitza berriaren erregimena jasoz, eta abar.)

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari jakinaraztea, Hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Kontuhartzaitzari ematea.



Usurbilgo Udala



6.- 2014/2015 IKASTURTEAN EUSKARA IKASI DUTENENTZAKO DIRU-LAGUNTZA KOPURUAK BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

Ikusirik

2015eko ekainaren 2an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2014/15 ikasturtean euskara ikasi dutenek diru-laguntzak eskatzeko deialdia argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 25ean hasi eta uztailaren 8an amaitu zen.

Epea amaitu ondoren, guztira 45 eskaera jaso dira.

Ondoren, 2015eko uztailaren 30eko bilkuran Diru-laguntzen Batzorde Orokorrak, Kultura, euskara eta gazteria teknikariaren txostena kontutan harturik, ebazpen-proposamena egin zuen. Ebazpen proposamen hau abuztuaren 11n Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaien alegazioak aurkezteko.

Bestalde, ebazpen proposamenaren iragarkia Usurbilgo Udaletxeko iragarki Taulan jarria izan da 2015eko abuztuaren 5etik abuztuaren 29ra bitartean.

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen.
- Diru laguntzak arautzeko udal ordenantzaren aldaketa (GAO, 2008/07/01).
- 2014/15 ikasturtean euskara ikasi dutenek diru-laguntzak eskatzeko deialdia (GAO, 2015/06/02)
- Kontuhartzailearen ziurtagiria

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: 2014/15 ikasturtean euskara ikasi dutenentzako diru-laguntza kopuru hauek behin betikoz onartzea.



Usurbilgo Udala

EUSKAL HERRIA

LANGABETUAK EZ DIREN EUSKARA IKASLEAK
EUSKARA MAILA BAXUAN ARITU DIRENAK

	Nortasun agiria	Diru-laguntza
1	73216655-L	346,92 €
2	15995326-E	457,00 €
3	15892829-J	406,60 €
4	34088577-R	457,00 €
5	35767150-B	406,60 €
6	72434496-K	348,20 €
7	72444669-M	348,20 €
8	30635482-B	329,80 €
9	15945968-E	329,80 €
10	72454906-F	481,00 €
11	72420799-D	329,80 €
12	15244812-K	348,20 €
13	15128522-L	348,20 €
14	72489885-A	171,40 €
15	15955937-D	348,20 €
16	29031543-T	457,00 €
17	34107143-Y	348,20 €
18	15922006-A	348,20 €
19	15491901-K	256,20 €
20	72512403-G	346,92 €
21	29135908-Z	430,60 €
	Guztira	7.644,04 €



Usurbilgo Udala

EUSKAL HERRIA

LANGABETUAK EZ DIREN EUSKARA IKASLEAK
EUSKARA MAILA ALTUAN ARITU DIRENAK

	Nortasun agiria	Diru-laguntza
1	44135493-B	255,44 €
2	72502935-N	421,40 €
3	44151856-K	338,00 €
4	44151855-C	356,60 €
5	72487503-J	236,00 €
6	35774105-C	236,00 €
7	72512772-M	356,60 €
8	15999323-V	125,60 €
9	78868215-L	235,40 €
	Guztira	2.561,04 €

LANGABETUAK DIREN EUSKARA IKASLEAK
EUSKARA MAILA BAXUAN ARITU DIRENAK

	Nortasun agiria	Diru-laguntza
1	34108920-N	481,00 €
2	44132176-Y	231,00 €
3	80143869-R	481,00 €
4	15944822-A	440,00 €
5	15990713-D	481,00 €
6	73232545-Q	481,00 €
7	Y1701257-F	438,40 €
	Guztira	3.033,40 €



Usurbilgo Udala



LANGABETUAK DIREN EUSKARA IKASLEAK
EUSKARA MAILA ALTUAN ARITU DIRENAK

	Nortasun agiria	Diru-laguntza
1	72486346-Y	457,00 €
2	48531953-K	273,80 €
3	44152083-H	304,20 €
4	72515842-Q	258,60 €
5	72554315-X	321,00 €
6	72526302-B	481,00 €
7	72535408-D	321,00 €
8	72517510-N	321,00 €
	Guztira	2.737,60 €

Bigarrena: Diru-laguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4200.480.335.00.01.2015 (A265/2015)

Hirugarrena: Interesatu bakoitzari ordainketa bideratzea.

Laugarrena: Kontu-hartzaitzari akordioaren berri ematea.

7.- 2014/2015 IKASTURTEAN AISIALDIKO BEGIRALE IKASTAROAK EGIN DITUZTENENTZAKO DIRU-LAGUNTZA KOPURUAK BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

Ikusirik

2015eko ekainaren 2an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzako diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren. Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 15ean hasi eta ekainaren 26an amaitu zen.

Epea horretan, guztira 2 diru-laguntza eskaera aurkeztu ziren.

Ondoren, 2015eko uztailaren 30eko bilkuran Diru-laguntzen Batzorde Orokorrek, Kultura, euskara eta gazteria teknikariaren txostena kontutan harturik, ebazpen-proposamena egin zuen. Ebazpen proposamen hau abuztuaren 10ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaizkien alegazioak aurkezteko.

Bestalde, ebazpen proposamenaren iragarkia Usurbilgo Udaletxeko iragarki taulan jarria izan da 2015eko abuztuaren 5etik abuztuaren 29ra bitartean.



Usurbilgo Udala



Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru laguntzak arautzeko udal ordenantzaren aldaketa (GAO, 2008/07/01).
- 2014/15 ikasturtean aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzako diru-laguntza oinarriak(GAO, 2015/06/02).
- Kontuhartzailearen ziurtagiria

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: Diru-laguntza kopuru hauek behin betikoz onartzea.

NAN	Diru-laguntza
72595739 B	212,5 €
72517406 Q	155 €

Bigarrena: Interesdunak 2017eko uztailaren 30a baino lehenago titulua eskuratu izanaren agiria ekarri behar du udalera. Titulua udalera ekartzen ez bada, udalari jasotako diru-laguntza itzuli egin beharko zaio.

Hirugarrena: Aisialdiko begirale ikastaroa egin dituztenentzako diru-laguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4400.481.326.00.01.2015 (A266/2015)

Laugarrena: Interesatu bakoitzari ordainketa bideratzea.

Bosgarrena: Kontu-hartzailetzari akordioaren berri ematea.

8.- HAINBAT TALDERI 2015EKO KULTURAKO DIRU-LAGUNTZEN 2. ZATIA ORDAINTZEA.

Ikusirik

2015eko otsailaren 3an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2015eko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, 2015eko kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza kopuruak behin betikoz onartu zituen.

Orain, Jexux Artze kultur elkarteak, Etumeta Aek euskaltegia eta Usurbilgo dantza egunaren antolakuntza taldeak hainbat ekintza antolatzeko emandako diru-laguntza modu honetara justifikatu ditu:

Jexux Artze Kultur Elkartea



Usurbilgo Udala



Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
68. Nola Belztu zuria (apirilak 23-24)	6.152,80 €	4.614,60 €	Gastuak: 6.776,00 Sarrera: 500,00 Guztira gastua: 6.276,00 Soberakina: 123,20	1.538,20 €
69. Lasa eta Zabala pelikula	225,00 €	168,75 €	Gastuak: 605,00 Sarrera: 255,00 Guztira gastua: 350,00 Soberakina 125,00	56,25 €
70. Erdibana Antzerkia	2.624,40 €	1.968,30 €	Gastuak: 3.537,00 Sarrera: 1.116,00 Guztira gastua: 3.537,00-1.116,00 = 2.421,00 + 68. eta 69. ekintzako soberakinak 248,20 = 2.624,40	656,10 €
Guztira				2.250,55 €

Etumeta Aek Euskaltegia

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
25. Bitxigintza	63,00 €	47,25 €	Gastuak: 100,00 Sarrera: 12,00 Guztira gastua: 88,00	15,75 €
Guztira				15,75 €

Usurbilgo dantza egunaren antolakuntza taldea

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
14. Usurbilgo III. Dantza eguna	2.250,00 €	1.687,50 €	Gastuak: 2.249,50	562,50 €
Guztira				562,50 €

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru laguntzak arautzeko udal ordenantzaren aldaketa (GAO, 2008/07/01).
- 2015n kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2015/02/03).
- Kontu hartzailearen ziurtagiria

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Honako eskatzaileari kultura arloko diru-laguntzaren bigarren zatia ordaintzea:

Eskatzailea	Ekintza	Ordainketa
Jexux Artze Kultur Elkarte	68,69,70	2.250,55
Etumeta Aek Euskaltegia	25	15,75
Usurbilgo dantza egunaren	14	562,50



Usurbilgo Udala



antolakuntza taldea		
---------------------	--	--

Bigarrena: Kultura Alorreko diru-laguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4000.481.334.00.03 2015 (A 3/2015)

Hirugarrena: Interesatuari akordioaren berri emango zaio.

Laugarrena: Kontu-hartzaitzari akordioaren berri emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:00etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.